



**LARRIALDIETAN
JARDUTEN DUGU
2024/25EKO
TXOSTENA**



**Save the
Children**

2024/25eko ikasturteko txosten honetan larrialdi-kontzeptura hurbildu eta haurrak eta nerabeak biktima zaurgarrienak nola diren azaldu nahi dizuegu. Azkar ekitea garrantzitsua da, baina baita larrialdiek dituzten ondorio suntsigarriei aurre hartzea ere.

Ezin dugu aurreikusi noiz gertatuko den lurrikara edo gatazka bat, baina prest egon gaitezke gure Larrialdietarako funtsen bidez. Eta horretarako guztion laguntza behar dugu.

Txosten honez gain, bertan agertzen diren kontzeptu asko azaltzen dituzten bideoak dituzue, baita gelan errealitate hau sakonago aztertzen lagunduko dizueten hezkuntza-ziklo bakoitzerako jarduerak ere.



savethechildren.es/centros-educativos/materiales-didacticos/charla-emergencias



Edizioa:

Marisol Paniagua, Sara Adrián
y Alberto Fernández

Artea eta maketazioa :

Germán Gullón

ONGI ETORRI!

Eskerrik asko beste ikasturte batez ikastetxeetako elkartasun-jarduerekin bat egiteagatik. Bi hamarkada baino gehiago daramatzagu zuen ondoan elkartasun-eta sentsibilizazio-jarduerak egiten. Jarduera horiei esker, milaka ikaslek eurenetik desberdinak diren beste errealitate batzuk ezagutu dituzte eta haur zaurgarrienen bozgorailu bihurtu dira.

Bizi garen mundu aldakor honetan bada etengabekoa den zerbait: gero eta larrialdi gehiagok suntsitzen dituzte komunitateak, eta haurrak eta nerabeak dira lehen biktimak.

Klima-aldaketaren ondorioak gehiago irauten duten lehorte, uholde larriak sortzen dituzten uholde-ur eta dagokion baino lehenagoko urakan bihurtzen dira. Egoera horiek guztiek **klima-larrialdi** esaten diogun hori ekar dezakete.

Gerrei eta gatazkei lotutako larrialdiak ere badaude, non indarkeria fisikoa eta heriotza-arriskua ez diren haurrek dituzten mehatxu bakarrak. Erreferenteak galtzea, toki seguru batera iritsi arteko lekualdatze ezezagunak edota familiako kideak galtzea haurren fisikoan eta psikologian eragina duten faktoreetako batzuk besterik ez dira.

Zuen laguntzarekin, larrialdi batean bizkor jarduteko eta ondorioak minimizatzeko lan egiten dugu Save the Children-en, larrialdi horiei aurre egiteko behar dituzten tresnekin hornituz familiak eta haien seme-alabak. **Orrialde hauetan egoera desberdinetan nola lan egiten dugun eta haur zaurgarrienak babesteko Larrialdietarako funtsek duten garrantzia ikusiko duzue.**





HAUR ZAURGARRIENAK

HAURREN ESKUBIDEAK LARRIALDIKO TESTUINGURU BATEAN

Haurren Eskubideak oso zaurgarriak dira larrialdiko testuinguruetan. Testuinguru horiek hondamendi naturalak edo gatazka armatua, epidemiak, behartutako lekualdatzeak eta komunitateen betiko bizitza nabarmen asaldatzen duten beste gertaera batzuk dira.

Funtsezkoa da larrialdien erantzun guztiak inklusiboak direla, haur guztiak barne hartzen dituztela eta haien babesa eta ongizatea lortzeko behar adina finantza-baliabide daudela ziurtatzea.

FUNTSEZKO ESKUBIDE HAUEK DITUZTE

Eskubide horiek bermatzeko behar eta arrisku jakinen ebaluazio bizkorrak egin eta esku-hartze egokiak diseinatu behar dira. Gobernuen, nazioarteko erakundeen, GKEen eta tokiko komunitateen arteko lankidetzaren erabakigarria da erantzun koordinatua eta eraginkorra emateko.

Bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea

Oinarrizko zerbitzuak izatea. Haurrek ezinbesteko zerbitzuak izateko eskubidea dute, hala nola elikadura, ur edangarria, mediku-arreta eta saneamendua, baita larrialdi-egoeretan ere.

Hezkuntzarako eskubidea

Hezkuntzak jarraitzea. Haurrek beren hezkuntzarekin jarraitu ahal izatea bermatu behar da, dela kaltetutako eskolak birgaituz, dela ikasteko behin-behineko gunean sortuz, dela ikasteko ingurune seguruetan hezkuntza-teknologiak erabiliz.

Babestuta izateko eskubidea

Errekrutamendu militarren aurkako babesa. Haurrak ez dira errekrutatatu edo erabili behar gatazka armatuetan, eta laguntza psikosoziala behar dute trauma eta estresa gainditzen laguntzeko.

Nortasunerako eskubidea

Jaiotza-erregistroa. Jaiotzean haur guztiak erregistratzen direla ziurtatzea, baita lekualdatze- edo larrialdi-egoeretan ere, erabakigarria da haur horien nortasuna bermatu eta zerbitzuak eta babesa jasotzeko.

Parte hartzeko eskubidea

Haurren ahotsa entzutea. Haurrek eragiten dieten erabakiei buruzko iritzia emateko eta larrialdi-programen plangintza egin eta horiek gauzatzeko unean parte hartzeko aukera izan behar dute.

Save the Children-en Larrialdi-funtsari esker, finantza-baliabideak ditugu ebaluazio bizkor bat eta koordinazio eraginkor bat egiteko eta Haurren eskubideak betetzeko lehen unetik.



HAURRAK ETA KLIMA-KRISIA

KLIMA-LARRIALDIA

«Betiko gogoan geratu zait ezagutu nuen familia baten istorioa. Aitak, Muktar Abdik, erabaki lazgarri eta ezinezko bati aurre egin behar izan zion urak bere herria suntsitu zuenean. Toki seguru bat ihes egingo zuen etxaldean berarekin zeuden bi seme-alabekin? Edo ur-goraldien eraginpean zegoen herrira joan eta emaztea eta seme zaharrena aurkitzen saiatuko zuen? Eta are okerragoa zena, zer salba zezakeen etxetik ura gerturatzan ari zen bitartean? Janari-erreserbak? Bere bizimoduaren oinarri ziren bere behi zoragarriak? Etxaldea bera? **Gure larrialdi-funtsekin bere egoeran zeuden familiek hondamendiaren ondoren bizitza berregiteko aukera bermatu genien.»**

Abdirizak Ahmed, Etiopia eremuko zuzendaria (irudikoa).

DESBERDINKERIA, POBREZIA ETA LEKUALDATZEAK AFRIKAKO ADARREAN

Azken urteetan asko ugaritu dira klimari lotutako hondamendiak, eta Afrika hegoaldean eta ekialdean bizi diren milioika pertsonak lekualdatu beharko dutela aurreikusten da. Klima-krisia are desberdinkeria, pobrezia eta lekualdatze gehiago sortzen ari da Afrika ekialdean. Jendea hiltzen, etxeak utzarazten eta haurrek etorkizun bat izateko duten aukera suntsitzen ari da.

Etiopian, Somalian eta Afrika Adarreko gainerako herrialdeetan, ebidentzia zientifikoak zuzenean lortzen ditu azken urteetako lehorrea eta klima-aldaketa. Lehorre horrek nekazaritzan edo abeltzaintzan aritzen ziren familien bizimodua suntsitu du. Klimaren joera garai lehorra luzeagoa izatea eta euri-garaia laburragoa izatea da, eta horrek ekosistema aldatuko du. **Ondorioz, gero eta zailagoa izango da eskualde horretan jaiotzen diren haurrak biziraungo dutela ziurtatzea.**

Azken urtean, Save the Children-ek ia astero aktibatu izan behar zituen klima-edo lurrikara-hondamendiekin lotutako larrialdiei erantzuteko taldeak. Haurrak gero eta muturrekoagoa den klima batean bizi dira gero eta desberdinagoa den mundu batean.





HAURRAK ETA GERRA- INDARKERIA

GATAZKAK ERAGINDAKO LARRIALDIA

«Behin baino gehiagotan egin genituen maletak eta behin baino gehiagotan eragotzi ziguten irtetea. Maleta berregiten nuen bakoitzean, barrukoa aldatzen nuen eta gero eta praktikoagoa zen. Azkenean ihes egitea lortu genuenean, geneukan janari guztia sartu genuen, eta pospoloak eta kandelak, sendagaiak eta ura hartu genituen. Baita dokumentuak eta bitxiak (saldu behar bagenituen ere), gure txakurren ontziak, gure katilu gogokoenak, sutan janaria prestatzeko gauzak eta kanpin-denda bat ere, aterpea bizkor aurkitzen ez bagenuen txakurrekin bizi behar bagenuen ere. **Oso harro nago Save the Children-entzat lan egiten dudalako, bai baitakit familiei ahazten zaien eta, are garrantzitsuagoa dena, maleta batean sartzen ez zaien, horrekin guztiarekin laguntzeko gaudela.»**

Olga Shults, Ukrainako elikagaien segurtasunerako eta bizitzeko bitartekoen arduraduna.

BIZITZAK TXIKITZEN DITUZTEN GERRAK UKRAINATIK KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKORA

Gerra pizten denean, haurren etorkizuneko aukerak arriskuan jarriko dira, dituzten eskubideak bigarren maila batera pasatzen direlako. Gatazkak berak dituen arriskuez gain, eskolara joateari uzten diote, segurua ez delako, eta lagunekin jolasteari uzten diote, buru-osasunean eragiten duen kaltearekin. Familiako helduek lana gal dezakete ezegonkortasun ekonomikoarengatik eta, ondorioz, elikadura gero eta okerragoa eta zailagoa izango da. Azken finean, etxetik ihes egingo dute eta errefuxiatu bihurtuko dira, egunen batean etxera itzuliko diren jakin gabe. **Munduko bost haurretatik bat gerra baten erdian bizi da edo gerratik ihes egin du.** Azken hilabeteetako zenbakiak lazgarriak dira: Sudanen indarkeriaren igoera, Gazako Zerrendako haurrek jasaten dituzten erasoak edo laster amaituko ez direla ematen duten Siria eta Ukrainako gerrak.

Save the Children 2014az geroztik ari da lanean Ukrainan haur zaurgarrienekin. Duela bi urte baino gehiago hango haurrei laguntzeko mobilizatu ginen, eta ez genuen pentsatzen amesgaiztoa amaierarik gabekoa bihurtuko zenik. Lehen unetik Ukrainako neska-mutilei eta familiei lagundu diegu. **Bi milioi baino gehiagok jaso dute gure laguntza: aterpea, elikagaiak, babesa, osasun-laguntza eta hezkuntza-laguntza eta laguntza psikologia jasota.**

Haurrek ez lukete gerraren zalantzarekin bizi behar, aitzak frontean dituztela, etxea suntsituta, eskola sutan eta bizitza etengabe arriskuan dutela. Horixe da Ukrainako haurrek bizi duten errealitate gordina, urteetan luzatuko den eta hamarkadetan ondorioak utziko dituen errealitatea.

Kongoko Errepublika Demokratikoak munduko krisi humanitario okerrenetako bati aurre egin behar dio, eta haurrek ordaintzen dute preziorik handiena. Indarkeriak haurren bizitzak mehatxatzen ditu, etxetik lekualdatzera behartzen ditu eta eskolak eta jolastokiak borroka-eremu bihurtzen ditu. Horrez gain, oso egoera zaurgarrian geratzen dira indar armatuek errekrutatzeke, bahituak izateko eta sexu-indarkeriak jasateko. **Afrikako herrialdeak klima-krisiaren ondorio larriak ere jasaten ditu,** maizago gertatzen diren eta larriagoak diren fenomeno meteorologikoak dituzte, adibidez, laborantzak suntsitzen dituzten lehorteak eta uholdeak eta gaixotasunak agertzeko arriskua areagotzen da.

Helduek beren arrazoia indarrez ezarri nahi duten bitartean, milioika haurrek ondorioak jasaten dituzte, eta Save the Children-en erantzun humanitarioak ezin du geratu segundo batean ere.



LARRIALDIETAN JARDUTEKO DUGUN MODUA

Larrialdi bat gertatzen denean, Save the Children-ek maleta batean sartzen ez dena ematen du, hurrei babesa eta segurtasuna bermatzea delako garrantzitsuena. Baina modu prebentiboan eta larrialdia komunikabideen fokutik desagertu ondoren ere jarduten dugu.



Aurretik

Komunitateei tresnak ematen dizkiegu lehortetarako prestatzeko; etxeak eta eskolak irtotzen ditugu uholdeak aurreikusten badira; haurrak txertatzen ditugu ohiko gaixotasunetatik babesteko eta alerta goiztiarreko sistemak hobetzen ditugu.

Durante

Bizitzak salbatzen dituen laguntza ematen dugu:

- Janaria
- Eskudirua
- Ur edangarria
- Aterpea
- Sendagaiak
- Tapakiak
- Arropa
- Garbitasunerako gaiak

Ondorren

Haurrak errekuaratzeko behar duten denbora guztian jarraitzen dugu. Hezkuntza eta laguntza psikologikoa ematen diegu gune seguruen bidez eta, gainera, osasun-arreta eta familien bateratzea, behar den kasuetan.

ZER DA SAVE THE CHILDREN-EN LARRIALDI-FUNTSA

Munduan, 40 milioi hurrek baino gehiagok galdu dute beren etxea, beren toki segurua, gerren edo hondamendi naturalen ondorioz. Hurrek etengabe jasaten dituzte krisiak. Gazako Zerrendako gerra izugarria, Ukrainan edo Yemenen oraindik bizi dutena, Siriako eta Turkiako lurrikarak edo munduko elikagai-krisia: haurrak etengabeko larrialdi-egoera batean bizi dira.

Larrialdi-funtsaren bidez prest egon gaitzake, bizkorrago erantzun dezakegu eta denbora gehiago babes ditzagun haurrak eta haien familiak giza hondamendiak sortzen direnean, segurtasuna, hezkuntza, aterpea, osasuna eta babesa emanez.

Orri hauetan ikusi ahal izan duzue, larria batean, haurrak direla zaugarrienak, baina era berean sekulako indarra ere badute, eta behar duten laguntza emanez gero, egoerarik suntsitzaileenak gainditzeko gai dira.

Gure lana ez da inoiz ere hain zaila eta arriskutsua izan, baina inoiz baino indar gehiago dugu eta, elkartasun-jardueren bidez ematen diguzuen laguntzari esker, janaria, behar-beharrezko ondasunak, mediku-laguntza, aterpea, hezkuntza eta babesa eman diezaiekegu. Larrialdi-egoeretan ere Hurren Eskubideak bete daitezten lor dezakegu.



PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

JUSTIZIA, BERDINTASUNA ETA DUINTASUNA GELAKO PROZESU PARTE-HARTZAILEETAN

Jarraian proposatzen den material didaktikoak ikasleak munduko errealitateak ezagutzera gerturatzeko gaitu eta justiziaren, eskubide-berdintasunaren eta duintasunaren aldeko partaidetza-prozesuak ahalbidetzen ditu. Jarduera solidario bat egin baino lehen, lagundu nahi diezuen neska-mutilek bizi duten errealitatea landu dezakezue gelan gure webguneko bideoekin.

 savethechildren.es/centros-educativos/materiales-didacticos/material-audiovisual 

PROPOSAMEN DIDAKTIKOEN HELBURUAK

- Larrialdi bat bizi duten neska-mutilen egoera eta egoera horren ondorioak ezagutaraztea.
- Bizitza, oro har, eta haur babesgabeena, zehazki, hobetzeko beharreko jarrera positiboak eragitea.
- berdintasunaren eta neska-mutilen etorkizun seguruaren aldeko parte-hartzea erraztea.

PROPOSAMEN DIDAKTIKOEN METODOLOGIA- PROZESUAK

Jarduerak diseinatzen direnean, hiru metodologia-prozesu hartzen dira kontuan eta hezkuntza-maila desberdinetako ikasketa curriculumera egokitzen dira:

EZAGUTZEA: informazioa entzuteko eta ulertzeko prozesua.

HAUSNARTZEA: banako edo taldeko ondorioak ateratzeko bereganatze-prozesua.

PARTE HARTZEA: Haurren Eskubideen aldeko ekintza kolektibo arduratsuaren prozesua.



2. ZIKLOKO HAUR-HEZKUNTZA



ATERPE BAT GELAN

ikasleei gerturatzeko, gelan aterpe bat eraikitzea proposatzen dizuegu. Aterpera nor gonbidatuko duten pentsatuko dute, beste errealitate batzuk ezagutzen hasteko eta munduko neska-mutil guztien berdintasun-ikuspegia irekitzeko.

Beharrezko materiala

Material birziklatua (arrautza-kartoiak, erretiluak...), ehunak, pintzelak, pinturak, errotuladoreak, eranskinak, itsasgarria, koloretako papera, artilea, soka, puntzoia, grapagailuak...

Azalpena

- **Gonbidatu haurrak elkarrekin aterpe bat eraikitzera (5 min)**

Guztiok babesteko eta seguru sentitzeko aterpe bat behar dugula azalduko du irakasleak, hotzetik, berotik, beldurretik, zaratatik eta abarrekin babesteko eta maite gaituztenen alboan seguru sentitu ahal izateko toki bat behar dugula.

- **Galde-erantzunen txanda (10 min)**

Borobil batean bilduko gara, eta irakasleak galdetuko du: Nor gonbidatuko genuke gure aterpera? hurrek bat-batean erantzungo dute eta, galde-erantzunen txanda amaitzeko, irakasleak azalduko du berak, beren etxetik gertu uholde bat edo gerra bat dagoelako dagoeneko beren etxeetan geratu ezin direla, urte askoan aterpe seguru baten eta seguru sentitu eta ikasten eta jolasten jarraitzeko eskola baten bila urteak daramatzaten neska-mutilak gonbidatuko lituzkeela.

- **Aterpeari ekingo diogu (25 min)**

Irakasleak pinturak, paperak eta itsasgarriak prestatuko ditu arrautza-kartoei, erretiluei edo aprobetxa daitekeen material guztiari kolorea emateko. Irakasleak artilearekin edo sokarekin apaindutako materialak lotuko ditu, teilatu-forma eman arte. Gero, ehuna (tiratan, errezel gisa eta abar) teilatuari katigatu eta bertatik zintzilikatuko du, hornei forma emanaz. (Iradokizun bat besterik ez da, aterpe soilago bat egin daiteke kanpin-denda batekin eta gero hura apain daiteke)

- **Gure aterpea sentituko dugu (10 min)**

Aterpea amaitu ondoren, ongi sentitu eta maita gaitzaten behar dugun guztietan aterpea bilatzeko balioko duela azalduko digu irakasleak. Aterpea ezagutuko dugu banan-banan, elkarrekin, abestuz, dantzan, entzunez, lau hanketan, irribarrez..., seguru sentitzea zein garrantzitsua den jakiteko. Save the Children-ek aterpeak, Gune seguruak, eraikitzen ditu, haurrek segurtasun hori berreskuratu ahal izateko.

Iradozizunak

Jarduerari ekin baino lehen, familiei material birziklatua (erretiluak, arrautza-kartoiak...) eta erabiltzen ez dituzten ehunak ekartzera gonbidatuko ditugu familiak.

Jarduerako fase bakoitzerako adierazitako denbora gutxi gorabeherakoa da, luzatu edo laburtu egin daiteke, irakaslearen irizpidearen eta parte hartzen duten haurren adinaren arabera.

Amaierako galdera

Zenbat haur sentitzen zarete babestuta eta seguru? Zer behar duzue seguru sentitzeko? Seguru sentitzen ez den haurren bat ezagutzen dugu? Zergatik?



LEHEN HEZKUNTZA 6-9 URTE



MARGOTU YULIAREN EMOZIOA

Kontakizun baten bidez, zuen ikasleek gerraren ondorioz etxea utzi behar izan duen neska baten ametsak eta sentimenduak ezagut ditzaten proposatzen dizuegu; gero, binetekin edo horma-irudietan marrazkiak margotuz Yuliaren sentimenduak eta ametsak isla ditzakete. Azkenean, ametsi buruz eztabaidatuko da.

Beharrezko materiala

Yuliaren kontakizuna, paper jarraitua, errotuladoreak, pinturak

Azalpena

- **Kontatu kontakizuna (10 min)**

Yuliak 8 urte ditu eta Kharkiven bizi da familiarekin. Animaliak maite ditu eta amets bat dauka, alabaria izatea. Alabaina, duela zenbait aste, sirenek gauez esnatzen dute eta beldur da. Ahizpa nagusiak kontatu zion sirena horiek munstroak uxatzeko zirela, zarata hark halako beldurrik eman ez ziezaion. Bosgarren solairu batean bizi dira eta eskailerak jaitsi behar dituzte sitora arte sirenak jotzen duen bakoitzean. Egunak pasa ahala, sotoan denbora gehiago pasatzen zuten etxean baino, eta janaria prestatzera soilik igotzen ziren hara.

Yuliari eskolara itzuli nahi du bere lagunak ikusi ahal izateko. Orain bere ahizpa nagusiarekin soilik jolas daiteke, eraikinean bere adinekobeste haurriek dagoelako. Egun batean, etxetik joan beharra zeukatela eta ezagutzen zuten guztia atzean utzi beharra zeukatela esan zien, toki hartan bizitzen jarraitzea segurua ez zelako jada. Behar-beharrezkoa hartu zuten: lehen laguntzako botikina, dokumentuak, arropa pixka bat... Autoa eraman ahal izan zuten guztiarekin bete zuten.

«Nire logelarekin, jostailuekin egiten dut amets, ezer ez da lehen bezala, galduta sentitzen naiz. Lasai egon nahi dut».

- **Margotu kontakizuna (25 min)**

Irakasleak paper jarraituan “horma-irudi binetak” egiteko lantaldeak antolatuko ditu, eta horma-irudi bakoitzean Yuliaren kontakizuneko esaldi bat idatziko da.

Banatu horma-irudiak gelan eta utzi marrazteko materiala. Talde bakoitza horma-irudiz horma-irudi joango da eta bost minutu izango dituzte marrazkian Yuliak sentitzen duena islatzeko.

- **Yuliaren ametsak eztabaidatuko dugu eta etxetik bizkor joan beharko bagenu zer eramango genukeen (15 min)**

Irakasleak taldeari galdetuko dio Yuliak eta beste haur batzuk bere etorkizuneko ametsa bete behar duten eta zergatik. Nahi izanez gero, erantzunak ere horma-irudietan idatz daitezke.



Irakokizunak

Irakasleak adinaren arabera egituratuko du gela. Horma-irudi binetak partaideen adinaren arabera antolatuko dira binetetako esaldien hautapena edo marrazteko metodoa (marrazki librea, taldeka, behatzea, ikaskidearena jarraitzea...).

Etxea utzi eta beste herrialde bateko beste eskola batera iristen diren hurrei buruzko bideoak egoera horiek eragiten dituzten emozioak gehiago sakontzeko lagun dezake.



Amaieran

Jarduera solidarioa azalduko dugu, txartela banatu eta Yuliaren antzeko haurrak eskola joan eta bizirauteko aukera izan dezaten ekonomikoki lagunduko dieten babesleak aurkitzearen garrantzia azalduko zaie.

**LEHEN
HEZKUNTZA
9-12 URTE**



ZER ERAMANGO ZENUKE

Partaideen helburua etxetik ihes egin behar izaten duten haurren errealitatearen alderdi batzuk ezagutzea izango da egituratutako elkarrizketa baten bidez. Elkarrizketaren ereduak ikuspegi desberdinetan jartzea laguntzen dugu: errefuxiatu eta kazetari gisa. Amaieran, garrantzitsua da esperientziari buruzko iritziak eta sentimenduak trukitzea.

Beharrezko materiala

Elkarrizketa, folioak eta boligrafoak.

Azalpena

- **Irakaslearen azalpena (5 min)**

Familiak etxea uzteko egoera ugari egon daitezkeela azaltzen du irakasleak: uholde bat, muturreko lehortea bat, gerra bat; adibidez, Ukrainako gerra duela 2 urte hasi zen eta, Sirian, 13 urte baino gehiago daramatzate. Larrialdi-egoera horietan, ez da denbora asko egoten nahi duzun guztia motxila edo maleta batean sartzeko. Zalantzaz, beldurrez eta ardurez betetako uneak izan hori eta gauza asko utzi behar dira atzean, ez materialak bakarrik, baita lagunak, familiako kideak, segurtasuna, eskola eta abar ere.



● **Elkarri egindako elkarrizketak (15 min)**

Irakasleak bikoteka jartzea proposatuko du, eta 7 minutuz, bikoteko kide bat gerragatik errefuxiatu den edo uholde edo hondamendi natural batengatik lekualdatu den haur baten paperen jarriko da eta beste kidea elkarrizketatzailea izango da; zazpi minutu igarotzean, papera aldatuko dute. Elkarrizketatuak direnean izen bat eta datozen herrialdea aukeratu ahal izango dute. Irakasleak elkarrizketaren gidioa banatuko du:

1. Nola izena duzu?
2. Zenbat urte dituzu?
3. Zenbat denbora pasatu da zure herrialdetik irten zinenetik?
4. Zer pentsatu zenuen gurasoek zure gauzeekin motxila bakar bat prestatu behar zenuela esan zizutenean?
5. Zer sartu zenuen motxila horretan? Zer utzi behar izan duzu?
6. Herrialderen bat hartu zaitu ala errefuxiatu-eremu batean bizi zara?
7. Zer izan nahi zenuen handitan?
8. Nolakoa zen zure etxea gerra baino lehen?
9. Nolakoa zen zure ikastetxea?
10. Zer sentitzen duzu errefuxiatu izatean?

● **Elkarrekin partekatzea (10 min)**

Elkarrizketen ondoren iritzi-truke bati ekingo diogu eta guztion artean nola sentitu garen partekatuko dugu, bai errefuxiatu gisa, bai elkarrizketatzaile gisa. Zertaz ohartu gara? Haur errefuxiatu baten tokian jarri zarela uste duzu, pixka bat bada ere? Zergatik uste duzu dela zaila bere tokian jartzea?

Iradozikunak

Jarduera egin baino lehen, haur errefuxiatuen errealitateari buruzko Save the Children-en bideoa ikus dezakezu elkartasun-ekintzaren bidez laguntzeko beharra testuinguruan jarri eta behar hori ulertzeko.



savethechildren.es/centros-educativos/materiales-didacticos/material-audiovisual



Amaieran

Jarduera solidarioa azalduko dugu, txartela banatu eta hurrek bizirauteko eta ikasketekin jarraitzeko aukera izan dezaten ekonomikoki lagunduko dieten babesleak aurkitzearen garrantzia azalduko zaie.

BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE



GERRA HUTS-FABRIKA BAT DA

Haur errefuxiatu baten istorioaren bidez, parte-hartzaileek haur errefuxiatuen bizitzetan eragina duten pertsonak ezagutzea nahi dugu. Lantaldeek besteen bizitza hobetzen laguntzen duten pertsonen ezaugarriei buruz pentsatuko dute eta neska-mutilen duintasuna babesteko beharraz hausnartuko dute.

Beharrezko materiala

Radiren istorioa, folioak, boligrafoak, papera, kartulinak eta errotuladoreak.

Azalpena

- **Radiren istorioa (5 min)**

Irakaslearen Radiren istorioa kontatuko du. Siriako haur errefuxiatua da Radi: “Radik hamabi urte zituen Siriatik bakarrik ihes egin eta Berlinera iritsi zenean. Inork ez daki Mediterraneoan zehar egin duen ihesaldian zer bizitu duen, ezta bere galerez ere.

Radi bakar-bakarrik zegoen Berlinen, Ottok eta Dorotheak beste heldu batzuekin partekatzen duten beren etxean jaso zutenean eta bere kargu egin zirenean. Egunez egun hizkuntza eta familia berriaren ohiturak ikasten eta eskolara ohitzen joan zen. Baina Bertorekin, 50 urteko irakaslearekin, Humbertarekin, 11 urteko bere ikaskide batekin, eta Oswaldorekin, 65 urteko gizon batekin, lortzen duen konexio eta adiskidetasun handia da bere beldurrekin bizitzen laguntzen diotena. Pixkanaka bere etxe partekatuan hartu duten pertsonen eta bere eskolaz fidatzen ikasten du.

- **Pentsatu eta apuntatu ezaugarriak (15 min)**


Irakasleak sei lantalde osatuko ditu, eta talde bakoitzari Radiren istorioan agertzen diren pertsonen izen bat (Otto, Dorothea, Berto, Humberta, Oswaldo eta Radi) emango dio. Talde bakoitzak 7 minutuz pertsonaiari buruz hitz egingo du eta tokatu zaien lagun ezezagun horrek beren ustez izan ditzakeen ezaugarriak apuntatuko dituzte paper batean.

- **Ezaugarriak denen artean partekatzea (10 min)**

Taldekako lanaren ondoren guztion artean partekatuko ditugu besteen bizitza hobetzen laguntzen duten eta munduan bizitza duin bat izatea babesten duten pertsonen ezaugarriak (horma-irudi batean bilduko ditugu ezaugarriak). Irakasleak ezaugarri horiek bultzatu beharreko ezaugarriak diren azalduko du eta horrengatik erabaki duela Haurren Eskubideak defendatzeko Save the Children-en elkartasun-ekintza honetan parte hartzea.

Iradokizunak

Larrialdi bat jasaten duten hurrei buruzko film labur hau ikus dezakezu. Fikziozko istorio bat da, baina milaka haurren bizipenetan oinarritutakoa da.



Amaieran

Jarduera solidarioa azalduko dugu, korrikalari-txartela banatu eta larrialdi bat jasaten ari diren haurrak eskola joan eta bizirauteko aukera izan dezaten ekonomikoki lagunduko dieten babesleak aurkitzearen garrantzia azalduko zaie.



INFORMAZIO GEHIAGO WEBGUNEAN




Txosten didaktiko hau amaitzeko, berriz ere eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen ikastetxeetan Save the Children-en elkartasun-jarduerak bultzatzeagatik. Larrialdiak gero eta maizago gertatzen dira, arrazoi batengatik edo beste batengatik, baina kasu guztietan, kaltetuenak haurrak izaten dira.

Zuen laguntzari esker, bizkorrago erantzun dezakegu eta luzaroagoan lagun diezaiekegu dena galdu dutenei etorkizun hobeko bat izateko itzaropena berreskuratzen.

OHIKO GALDERAK ETA KONTU-ZENBAKIA

Webgunean gure erakundeari buruzko ohiko galderak eta gure jarduerak ikusiko dituzue. Bertan, **bildutako dirua sartzeko kontu-zenbakiak ere aurkituko dituzu**, diru-sarrera solidario hori egitean ordainagiri bat eta zuen hezkuntza-komunitatearekin partekatzeke eskerrak emateko diploma bat bidaliko dizkizuegu.

Jaso dugu dirua. Eta orain, zer?



HAURREN ESKUBIDEEN ALDEKO ESKOLA-UHOLDE BATEN ALDE

Save the Children-en ekintzaren protagonista den ikasleen alde egiten dugu. Mundua aldatzeko mobilizatzen diren haurrak enpatiaren, jasangarritasunaren eta elkartasunaren balioetan hezitako haurrak dira.

**Eskerrik asko gehien sufritzen duten
haurren bozgorailu izateagatik.**



**MUGITZEN BAZARA,
MUNDUA ERE MUGITU EGITEN DA**



Save the Children